Bestalde, laborantzaren ekonomia lurraldearen antolamendu proiektuaren bihotzean ezarria da. Hiritartzeari lotua den eremu kontsumoaren mugatzeari esker laborantzako eremuak babestuak izanen dira. Hautetsien anbizioa nagusiki hazkuntzan oinarritua den laborantza sailaren laguntzea ere da eta sail hauen sustatzea : zirkuitu laburrak, tokiko eraldaketa, jadanik hor diren sormarken baloratzea, kalitatezko ekoizpenen eta hazkurri industriako jardueren laguntzea.

Azkenik, turismoari lotutako jardueren sustengua paisaien, naturaren eta kulturaren baloratzean oinarritzen da.

- Bizi ingurumena, paisaiaren eta ingurumenaren kalitatea babestu

Helburua bioaniztasunaren aldetik interes gehien duten natura eremuen babestea da (bereziki larreak eta mendietako belardi naturalak), bai eta ere natura, oihan, eta laborantza eremuetan identifikatuak izan diren jarraitutasun ekologikoak.

Paisaien babestea hola egine da: ondare eraikiari balioa emanez, herri itxura historikoak errespetatuz, Euskal Herriko nortasun arkitekturala eta Etxaldeari lotua dena atxikiz, Etxea bere laborantza testuinguruan ezarritik. Eremu batzu bereziki babestuak izanen dira, adibidez Arberoako ibarra edo mendi gainen eremua.

Ondoko epeak

2017an, AGIParen jarraian, lehen araudietan ezartzen lan bat hasia izan da, bereziki herriarteko proiektu honek 11 herriek dituzten berezitasunekin bat egin dezan. Zonakatze lan honek segituko du 2018an, antolamendu eta programaketa norabideen eta araudiaren idazketari lotua, lurraldearen eremu ezberdinen gaurko eta biharko antolamenduaren ezaugarri nagusien definitzeko. Hirituak diren eremuak, hirituak izanen diren eremuak, laborantza eremuak eta natura eremuak.

Elkar aditzea

Elkar aditzea hTHPren eratze fase guzian eramana da. Hautetsiekin, Estatuko zerbitzuekin, herritarrekin, eragile ekonomikoekin, etab.

Hainbat elkar aditze tresna plantan ezarriak dira :

- Bilkura publikoen antolaketa*
- Argitasun elementuak eskuragarri ezartzea Hazparneko Lurraldea eremuko eta herrietako webgunean*
- Dokumentuak eskuragarri ezartzea Lurralde Eremuko egoitzan eta Herriko Etxean*
- Artikuluak elkargoko aldizkarian, herrietako aldizkarietan, tokiko prentsan*
- Erregistro baten plantan ezartzea, Lurralde Eremuko egoitzan eta herrietan eskuragarri dena, prozedura guztiak irauten duen denboran, usaiako irekitze egun eta orenetan, interesatuak diren edozein pertsonendako.*

Bilkura publikoak finkatuak izanen dira 2018 erditsutan lehen zonakatze, araudi eta antolamendu eta programaketa norabide elementuei buruz eztabaidatzeko. 2019 urtea hTHPren bururatzeko izanen da, eta orduan inkesta publiko bat antolatua izanen da proiektuari buruzko oharra eta proposamenak biltzeko.

Edozein xehetasun edo galde osagarrirendako, zuen Herriko Etxeko idazkaritza deitzen ahal duzue. Idatzizko galdera guztiak honat igorri behar dira :

Euskal Hirigune Elkargoa Hazparneko Lurraldea erremua

Francis Jammes karrika, 54 – 64 240 Hazparne

La Communauté d'Agglomération Pays Basque gère de nombreux équipements, en lieu et place des anciens EPCI (salle de spectacles, piscines intercommunales, maison de services publics, etc.)

Elle accompagne aussi au quotidien, dans une grande partie de son territoire, les services liés à la petite enfance, la jeunesse, les personnes âgées, et la santé.

Action sociale d'intérêt communautaire

Elle n'est pas définie par la loi. De ce fait, elle peut être appréhendée par chaque intercommunalités de façon plus ou moins large.

Au delà de l'existant, il s'agit de déterminer, de façon prospective, quels sont les besoins du Pays Basque.

Pour déterminer le projet social du Pays Basque, et en fonction de celui-ci, déterminer le bon niveau de gestion des équipements et services, il est proposé une Analyse des Besoins Sociaux du territoire.

Il s'agit donc d'un diagnostic social assorti de préconisations pour l'action publique associant les acteurs publics (Conseil Départemental, communes, CCAS). Il portera deux enjeux :

- un enjeu de connaissance des populations, des acteurs et des besoins à une nouvelle échelle
- un enjeu de prospective devant aider la communauté d'agglomération à déterminer le contenu de la compétence "action sociale d'intérêt communautaire" autour d'un projet.

L'ABS et l'élaboration du projet social devront être achevés pour l'été 2018, de façon à permettre à l'assemblée de définir précisément l'intérêt communautaire.

Cette démarche permettra de mettre bout à bout toutes les réflexions en matière de santé, d'autonomie, d'enfance / jeunesse, et de précarité / solidarité.

En date du 16 décembre 2017, le Conseil Communautaire a décidé :

- d'exercer, à compter du 1er janvier 2018, la compétence "Action Sociale d'Intérêt Communautaire" sur la totalité du territoire de la CAPB
- de définir, courant 2018, l'intérêt communautaire associé à l'exercice de cette compétence.

Euskal Hirigune Elkargoak, lehengo HeLEPen ordeztuak ekipamendu anitz kudeatzen du (ikusgarri gela, herriarteko igerilekuak, zerbitzu publikoetako etxea, etab.)

Gisa berean, bere lurraldeko parte handi batean, haur ttipiekin, gazteriarekin, adinekoekin eta osasunarekin loturiko zerbitzuak ere segitzen ditu egunerokoan.

Elkargoaren intereserako gizarte ekintza

Ez da legean zehaztua. Hori dela eta, herri elkargo bakoitzak molde aski zabalean uler lezake.

Jadanik badenaz harago, Euskal Herriaren beharrak zein diren molde prospektiboan zehaztu behar da.

Euskal Herriko gizarte proiektua definitzeko eta, honen arabera, ekipamendu eta zerbitzuen kudeaketa maila egokia definitzeko, lurraldearen Gizarte Beharren Azterketa (GBA) egitea proposatu da.

Ondorioz, eragile publikoak (Departamenduko Kontseilua, herriak, GEUZ) elkartzen dituen ekintzarako gomendioak emanen dituen gizarte diagnosikoaz ari gara:

- Maila berri batean, biztanlerien, eragileen eta beharren ezagutzearen erronka*
- Proiektu baten inguruan, hirigune elkargoa "Elkargoaren Intereserako Gizarte Ekintza" eskumenaren edukia zehazten lagunduko duen prospektibaren erronka.*

GBA eta gizarte proiektuaren osaketa 2018ko udarako bururatuak izan beharko dira, biltzarrari elkargoaren interesa zehazki definitzea ahalbidetzeko gisan.

Desmartxa horrek, osasuna, autonomia, haurtzaro / gazteria eta prekaritate / elkartasun gaiei dagozkien hausnarketa guziak aztertzeke parada emanen du.

2017ko abenduaren 16an, Elkargoko Kontseiluak deliberatu zuen:

- 2018ko urtarrilaren 1etik aitzina, EHEko lurralde osoan "Elkargoaren Intereserako Gizarte Ekintza" eskumena beregain hartzea*
- 2018 urtean zehar eskumen horren baliatzeari loturiko elkargoko interesa definitzea.*

« GURE URA », L'EAU DU PAYS BASQUE



Depuis le 1^{er} janvier 2018 et suite à la délibération du Conseil communautaire du 4 novembre 2017, la Communauté d'agglomération Pays Basque assure les compétences liées au cycle de l'eau sur l'ensemble des 158 communes du Pays Basque, de la production à la distribution de l'eau potable, de la prévention des risques d'inondations à l'assainissement collectif et individuel.

La Communauté d'agglomération Pays Basque, au travers de la gestion globale de ces politiques publiques, entend agir pour préserver la ressource et mieux la protéger, assurer un service de distribution de l'eau et une qualité de l'eau potable irréprochables.

Le service mis en place au 1^{er} janvier 2018, dont les conditions sont inchangées (prix inclus), repose sur l'expérience, la qualité et le maintien sur tout le territoire des organisations existantes. La proximité avec les abonnés et les communes est un des principes fondamentaux de ce nouveau service.

Infos sur www.communaute-paysbasque.fr

Le dossier de presse de la conférence de presse du 22 mars dernier ci-après détaille précisément les contours de la politique publique et ses enjeux à l'échelle du Pays Basque.

“GURE URA”, EUSKAL HERRIKO URA

2018ko urtarrilaren 1az geroztik eta 2017ko azaroaren 4ko Elkargoko Kontseiluaren deliberoaren ondotik, Euskal Hirigune Elkargoak, bere baitako 158 herrietan, uraren zikloarekin loturiko eskumen guziak kudeatzen ditu, ur edangarriaren ekoizpenetik banaketara, uholde arriskuen prebentziotik saneamendu kolektibo eta indibidualera.

Euskal Hirigune Elkargoak, politika publiko horien kudeaketaren bidez, baliabideak zaindu eta hobe babesteko eta uraren banaketa zerbitzua eta uraren kalitate ezin hobea bermatzeko xedea du.

2018ko urtarrilaren 1ean zutik emaniko zerbitzua, aitzineko baldintza beretan mantendu dena (prezioa barne), jadanik plantan diren antolakundeen esperientzian, kalitatean eta hauen lurralde osoan mantentzean oinarritzen da. Abonatuekiko eta herriekiko hurbiltasuna zerbitzu berri horren oinarritzko printzipioetarik bat da.

Argibideak www.communaute-paysbasque.fr

Beherean den martxoaren 22ko prentsaurrekoko prentsa dosierrak, politika publikoaren nondik norakoak eta Euskal Herri mailako honen erronkak xeheki zehazten ditu.

INFOS

...

OHARRAK

Tarifs / Prezioak

Salle pour tous – Denen Etxea	Isturiztar	Extérieur
- ½ journée – egun erdia	200 €	400 €
- 1 journée – egun osoa	350 €	700 €
- Groupe de moins de 50 personnes - 50 jende gutti	200 €	400 €
Cantine « On Egin » – « On Egin » jantegia	100 €	200 €

Trinquet : location

1h journée avant 18h : 5 €

1h sans lumière après 18h : 7 €

1h avec lumière après 18h : 10 €

Trinketa alokatzea

Egun bat 6 :00 aitzin : 5 €

Oren bat argirik gabe 6 :00 ondotik : 7 €

Oren bat argiarekin 6 :00 ondotik : 10 €

La salle pour tous / Denen etxea

Elle est mise à disposition à titre gracieux pour les associations du village jusqu'à 3 manifestations dans une année. Au-delà 100 € par événement.

Si la salle est utilisée 2 jours par une personne du village pour fêter son mariage, le tarif de la location sera de 1 jour.

Le dépôt d'un chèque de caution sera exigé le jour de la prise de possession des locaux.

Un contrat de location sera établi dans tous les cas, **un mois avant la manifestation**. Il sera accompagné du règlement intérieur.

Rappel : Le comité des fêtes ainsi que la mairie vous font savoir que les mobiliers (tables + bancs) sont à votre disposition gratuitement. Si vous êtes intéressés par ce service, veuillez contacter Dominique CASEMAJOR ou bien Carmen CARCELLER.

Un registre de prêt sera à signer lors de chaque emprunt, ainsi qu'au retour auprès des mêmes personnes.

Dohainik utzia da herriko elkarteendako, hiru aldiz urtean. Hortik goiti 100 € aldi bakotx.

Herriko norbaitek gela 2 egunez erabiltzen badu bere eztaizendako, bakarrik egun bat kondatua izanen da.

Gela erabili aitzin, txeke bat utzi beharko da fidantza gisa.

Edozein gisaz, alokatze hitzarmen bat izenpetua izanen da hilabete bat erabilpena aitzin. Barne araudi batekin emana izanen da.

Ez ahantz : Pesta komiteak eta herriko etxeak orroitarazten dautzue higigarriak (mahain eta jarlekuak) dohainik direla. Zerbitzu horrek interesatzen bazaituzte, deitu Dominique CASEMAJOR edo Carmen CARCELLER.

Aldi bakotx, liburu batean izena eman beharko duzue materiala hartzean, eta itzultzean, pertsona berdinekin.

Employés communaux / Herriko langileak

En mai 2018, après une année et demie de bons et loyaux services, Claudine BERHO, secrétaire de mairie a laissé sa place à Claire LABOURDETTE. Nous remercions Claudine et souhaitons la bienvenue à Claire.

2018ko maiatzean, urte bat eta eterdi ongi zerbitzu emanik, Claudine BERHO herriko idazkariak bere lekua Claire Labourdetteri utzi dio. Claudine eskertzen dugu eta Claireri ongi etorria egiten.

Horaires secrétariat / Idazkaritza tenoreak

Depuis le 1er mai 2018, les horaires d'ouverture de la mairie au public sont :

2018ko maiatzaz geroztik, herriko etxea publikoarentzat tenore hauetan irekia da :

Lundi / ***Astelehena*** : 8h00 – 12h30

Mardi / ***Asteartea*** : 8h00 – 12h30 et 13h30 – 17h30

Jeudi / ***Osteguna*** : 8h00 – 12h30

Vendredi / ***Ostirala*** : 8h30 – 12h30 et 13h30 – 19h00

Bourses communales / Herriko diru laguntzak

Tous les étudiants inscrits en enseignement supérieur (à partir du niveau Bac) sont priés de se faire connaître auprès de la mairie pour obtenir une bourse communale (pour une première demande se munir d'un RIB + certificat de scolarité) et ce dans les meilleurs délais. Sont également éligibles les étudiants inscrits en classe Prépa concours.

A noter : cette bourse sera versée chaque année à partir du mois de mai, aux étudiants inscrits lors de la rentrée précédente.

Goi mailako irakaskuntzan (batxilergotik goiti) diren ikasle guziek herriko etxearekin harremanetan ezarri behar dute herriko diru laguntza baten ukaiteko, ahal bezain fite (lehen aldia baldin bada, banku Nortasun Agiri bat ekar).

Oharra : Diru laguntza hau emana izanen da, goi mailako irakaskuntzan sartu ondoko urtearen hastapeneko aurrekondua bozkatua izan ondotik.

Cimetière / Hilerriak

La commune a créé cinq caveaux. Quatre sont disponibles. Toute personne intéressée peut s'adresser à la Mairie.

Herriak bost leku sortu ditu. Lau libre dira. Norbait interesatua baldin bada, herriko etxea dei dezala.

Concession cimetière / Hilerriko kontzesioa

Si vous possédez un caveau familial, assurez-vous que vous avez un titre de propriété. Celui-ci sera transmissible à vos descendants. Pour tout renseignement, veuillez vous adresser à la mairie.

Hilerrietan leku bat baldin baduzue, begirazazue baduzuenez jabetza agiri bat. Zuen hurrei pasatzen ahalko duzuen.

Xehetasunak bila, jiten ahal zirezte herriko etxerat.

Recensement Journée Défense et Citoyenneté / Jende kondaketa, defentsa eta hiritartasun eguna

Tout Français doit faire la démarche de se faire recenser, à 16 ans, auprès de sa mairie. C'est obligatoire pour pouvoir se présenter aux concours, examens publics et permis de conduire.

Frantses guziek kondatuak izaiteko urratsak egin behar dituzte haien Herriko Etxera joanez. Ezinbestekoa da konkurtso eta azterketa publikoetan aurkezteko.

Infos village / Berriak

Depuis quelques années, la mairie vous informe des différentes manifestations et/ou évènements qui ont lieu au sein du village ou dans les alentours.

Si vous souhaitez recevoir ces informations par internet, veuillez le faire savoir en envoyant votre adresse mail à : isturits-com@outlook.fr

Bada zenbait urte Herriko Etxeak gure herrian edo inguruan antolatuak diren gartakarien berri emaiten dizuetela.

Argitasun haueak internetez errezibitzeko interesatuak baizirezte, jakinaraz iezaguzue, helbide honetara idatziz : isturits-com@outlook.fr

Accès aux locaux publics / Ekipamenduen erabilpen moldeak

Le jardin public n'est pas accessible pendant les horaires d'école.

En revanche, dès 17h00, il sera accessible. Vous pourrez y accéder par le portail de l'école.

Le mercredi, le parc sera accessible à partir de 14h00.

L'été, un calendrier sera établi pour l'occupation du trinquet et du jardin public. Les modalités d'utilisation seront transmises à tous les villageois.

Eskola denboran, herriko parkea zerratua da.

Bainan arratsaldeko 5:00ak goiti, idekia izanen da publikoari. Sartzea izanen da eskolako aldetik.

Asteazkenetan, herriko parkea idekia izanen da arratsaldeko 2:00ak goiti.

Egutegi bat igorriko dugu udako erabilpenarentzat.

**LA VIE ASSOCIATIVE DU
VILLAGE**

**ELKARTEEN BIZIA
HERRIAN**



L'association Artetxea fut créée il y a 3 ans, dans le but d'organiser des événements culturels pour toutes les générations. Cela a également permis de redonner vie à un lieu fermé depuis quelques années.

En 2017, nous avons organisé une quinzaine d'animations, parmi lesquelles : le tournoi de mus, la matinée de troc, le kantaldi, le repas de chants, la soirée châtaigne, l'après-midi de Noël...

Sans oublier la pièce de théâtre, organisée à l'occasion des fêtes du village ; 13 jeunes villageois ont travaillé durant 3 mois pour nous présenter « XALBATTIN », une pièce de Pantxo Irigaray.

Durant les vacances d'octobre une dizaine d'enfants a pu assister au stage de cirque, à l'issue duquel ils nous ont présenté un petit spectacle. Nous voudrions cette année encore mettre en place ce genre de stage durant les vacances.

En ce qui concerne les travaux, nous avons changé la porte d'entrée et nous souhaitons cette année refaire l'installation électrique.

Pour les projets de l'année 2018, notez dès à présent le kantaldi qui aura lieu le 1er septembre avec Xendarineko ahizpak et Otxalde. Et nous ne doutons pas, que les plus jeunes nous referont le plaisir de préparer une nouvelle pièce de théâtre !

Nous proposons également des activités régulières :

- yoseikan budo
- yoseikan training
- yoga
- Artetxea kantuz...



Pour plus d'informations sur l'association ou sur les différentes activités, n'hésitez pas à contacter le 06.31.64.60.88. Vous pouvez également venir aux animations que nous organisons, vous serez les bienvenus !

ARTETXEA



Artetxea elkartea duela 3 urte sortu zen, hetsirik zen gela horri bizi berri baten emateko, beste herrietan diren kultura elkartearen gisa, ekintza kulturalak proposatu nahiz adin guzietako jendeentzat .

2017 urtean 15bat ekintza ezberdin antolatuak izan ziren, hauen artean mus txapelketa, trukaketa goiza, mintzaldiak, kantaldia, kantu bazkaria, gaztain gaua, eguberri aratsaldea,...

Urteko mementu azkarra herriko pestentzat prestatu antzerkia izan zen, 3 hilabetez herriko 13 gaztek lan egin baitzuten antzerkiaren taularatzeko, biba horiek !

Urriko oporretan 10 bat haurrek zirko ikastaldi bat egin zuten aste oso batez, eta azken egunean ikusgarri bat aurkeztu zaukuten. Aurten ere oporretan halako eskaintzak egin nahi genituzke.

Obren aldetik, sartzeko atea aldatu dugu eta aurten elektrika sarea berritu nahi ginuke.

Aurtengo urteari begira jakin ezazue irailaren 1an kantaldia izanen dela Xendarineko ahizpak eta Otxalde talde ezagunarekin eta pentsatzekoa da ere gazteak berriz motibatuko direla antzerki berri baten prestatzeko !

Jakin ezazue ere jarduera erregularrak badirela astean zehar :

Yoseikan budo

Yoseikan training

Yoga

Artetxea kantuz,..



Xehetasun gehiago nahi izanez gero, elkarteaz edo jardueraz, deitzen ahal duzue telefono zenbaki huntara : 06 31 64 60 88 edo hurbiltzen ahal zirezte antolatzen ditugun gaudiatarat, ongi etorriak izanen zirezte !

ASSOCIATION GAZTELU « Génération Mouvement »

Nous déplorons le décès d'un de nos adhérents : Monsieur Joseph DURRUTY, à l'âge de 92 ans.

Sorties 2017

- Le 4 mai, Déjeuner/spectacle cabaret à Dantxaria.
- Le 11 octobre, sortie Palombes avec visite guidée et dégustation à Arnabar, puis repas au col d'Osquich. Pour terminer, visite d'une fabrique d'espadrille à Mauléon.

Réunions

- AG ordinaire de Génération Mouvement à Mourenx.
- AG de notre club suivie d'un goûter aux beignets.
- Réunion de secteur à Hasparren
 - Informations notariales (succession, assurance vie)
 - Informations de la Fédération
 - Questions diverses
- Réunion de secteur à Sauveterre de Béarn
 - ASEPT (Assurance santé, éducation et prévention sur les territoires)
 - Information de la Fédération
 - Questions diverses

Les activités : Les après-midi de jeux ont toujours lieu, tous les 15 jours au café Haramboure.

Rapport financier : Solde excédentaire de 1179.86 €

GAZTELU ELKARTEA "Mugimendu belaunaldia"

Gure kide bat galdu dugu : Joseph DURRUTY jauna, 92 urtetan.

2017ko ateraldiak

- Maiatzaren 4an, Bazkari/ikusgarria Dantxarian.
- Urriaren 11an, Urtxo ateraldia eta jastaketa Arnabarren, ondotik bazkaria Ozkaxeko lepoan. Bururatzeko, espartin fabrika baten bisita Maulen.

Bilkurak

- Génération Mouvement elkartearen ohiko Biltzar Nagusia Mourenx herrian.
- Gure elkartearen Biltzar Nagusia eta ondotik askari kauserekin.
- Eremu bilkura Hazparren - Notario argitasunak (ondoriotasuna, bizi asurantzak). - Federakuntzaren berriak. - Bestelako gaiak

Aktibitateak : Joko arratsaldeak beti badira, bi astetarik Haramboure ostatuan.

Finantza mailako bilana : 1179.86 €-ko soberakinezko saldoa

Gros gibier

Les populations de grand gibier se portent bien puisque:

- Le plan de chasse de 15 chevreuils accordé par la Fédération a été réalisé en totalité.
- Une trentaine de sangliers ont également été prélevés sur les communes d'Isturitz et Ayherre. En effet, depuis de nombreuses années, cette espèce est chassée en commun sur ces deux communes.

Petit gibier

Afin de préserver la souche locale de lièvres et de faisans, les prélèvements restent très mesurés et aucun lâcher n'a été effectué. Grâce à tous ces efforts, nous constatons un repeuplement progressif du territoire et la présence de véritable gibier sauvage ...

Une vingtaine de renards ont également été prélevés au cours de diverses battues. L'Homme étant le seul prédateur du renard, cette régulation est nécessaire. Les coqs, poules, canards des élevages d'Isturitz apprécient nos efforts et nous le rendent bien par la suite !




Gibier de passage

Même si la migration des palombes se fait moins que par le passé sur notre secteur, l'hivernage des oiseaux est en hausse. Des hivernantes restent chez nous et circulent régulièrement entre les différents bois d'Isturitz.

La migration des bécasses a également été chaotique car leur migration est conditionnée par les températures enregistrées en Europe du Nord. Des températures clémentes en Europe du Nord ne poussent pas les oiseaux à se déplacer ... Mais, les chasseurs et les chiens ne restent pas à la maison pour autant.

Lors de l'assemblée générale du mois de mai, un solde positif a été enregistré.

Si vous êtes intéressé(e)s par du civet de chevreuil en barquette, n'hésitez pas à contacter Jean-Michel DURRUTY au 06.89.61.21.35. La barquette de 1 kilo est vendue 10€.



Ihizi larria

Ihizi larriak osagarri onean dira, arrazoin hauengatik:

- Federakuntzak eman duen 15 orkatzetako ihizi plana osoki bururat eramana izan da.
- Hogeita hamar bat basurde ere hilak izan dira Isturitzen eta Aiherran. Alabainan, bada hainbat urte ihizi mota hori bi herrien artean ihiztatua dela.

Ihizi ttipia

Jatorriz tokiko erbi eta basoilarren babesteko, hiltzeak mugatuak izan dira eta ez da libratzerik egina izan. Indar guziei esker, lurraldean kopuruak emeki berriz goiti ari direla, eta zinezko ihizi basa badela ohartzen gira...

Hogeit bat axeri ere hilak izan dira ehizaldi ezberdinen kari. Gizona denez axerien harropari bakarra, erregulatze hau beharrezkoa da. Isturitzeko hazkuntzetako oilar, oilo eta ahateek gure indarrak preziatzen dituzte eta ondotik ongi itzultzen daukute !




Pasaiaiko ihizia

Urtsoen migrazioa ez bada lehen bezainbat egiten gure eskualdean, xoriek gero eta gehiago neguan geldialdi bat egiten dute indarrak hartzeko. Neguko xori horiek gure etxean egoiten dira eta erregularki Isturitzeko oihanen artean ibilki dira.

Pekaden migrazioa ere nahasia izan da, haien migrazioa Europa Iparraldeko tenperaturek baldintzatzen baitute. Europa Iparraldean goxo delarik, xoriek ez dute mugitzeko gogorik... Bainan ihiztariak eta zakurrak ez dira hala ere etxean egoiten.

Maiatzeko Biltzar Nagusiaren kari, balantza positiboa hauteman da.

Ontzixketan den orkazki saltsa erosteko interesatua bazira, ez duda Jean-Michel DURRUTY deitzea 06.89.61.21.35 zenbakira. Kilo bateko ontzixka 10 €-tan saldua da.



ABARRATIA
AYHERRE / ISTURITS / SAINT ESTEBEN



En 2017, ABARRATIA comptait 80 licenciés sportifs dont 19 filles, effectifs en hausse par rapport à 2016.

L'école de pala-ancha féminine ré-ouverte en février 2016 est victime de son succès. Christine ETCHEVERRY et Virginie JONCQUET entraînent 13 jeunes filles tous les mercredis après-midi au trinquet d'ISTURITZ. Les plus grandes ont connu leurs premiers émois en championnat Union Basque en juin dernier.

Les 6 autres « confirmées, entraînées par J-Michel IRIBARNE, ont obtenu de bons résultats. A souligner la performance de Fanny MESPLES qui a atteint 3 finales en 2017 avec Luxi LASCARAY (extension AIRETIK).

En main-nue, la plupart des jeunes ont participé aux championnats du Pays-Basque, de l'Union Basque et de la Fédération, en trinquet, mur-à-gauche et fronton. Il n'y a eu que **3 finales** pour ABARRATIA mais davantage d'équipes en phases finales que les années précédentes (1/4 et 1/2 finales). Ce qui est un bon point pour le club.

Courant 2017 :

- des activités ont été organisées pour assurer l'équilibre financier du club : vente de calendriers, vente de gâteaux lors de l'élection présidentielle, pesée d'un jambon au cours du méchoui d'AYHERRE, buvette et vente de taloas lors des réceptions des finales.

Le bilan financier présente un résultat bénéficiaire de **1 652,55 €**.

- une sortie de fin de saison à Aquatic Landes à LABENNE pour les jeunes licencié(e)s, suivie d'une soirée paëlla ouverte aux parents et membres du club ont été organisées pour la cohésion du groupe.

- un nouveau site internet, **www.abarratia.fr**, a été créé et une page facebook (**abarratia facebook**) ouverte.

En 2018, la plupart des activités seront reconduites. Une dépense importante sera à prévoir en matière d'achat de pelotes, achat imposé par la FFPB.

Le trinquet d'ISTURITZ est occupé tous les mercredis après-midi pour les entraînements de pala et de main-nue et réquisitionné parfois pour des parties de championnat. Nous profitons de ce bulletin pour remercier la commune pour la mise à disposition de ses équipements.

RESULTATS DES 3 FINALES DISPUTEES EN 2017

DATE	LIEU	CHAMPIONNAT	EQUIPES	SCORE
29/01/2017	BARDOS	U. BASQUE MAIN-NUE TRINQUET / BENJAMINS A	ABARRATIA <i>Duhalde Xalbat – Echevertz Mattin</i>	31
			IRISARTARRAK <i>Bidart Paolo – Uhart Bixente</i>	40
26/03/2017	ASCAIN	LPPB MAIN-NUE TRINQUET TETE À TETE / JUNIORS B	NAPURRAK <i>Darguy Paul</i>	40
			ABARRATIA <i>Etcheverry Pierre</i>	18
15/07/2017	USTARITZ	LPPB MAIN-NUE PLACE LIBRE / BENJAMINS B	AIRETIK <i>Dupuy Ellande – Bourdillat Thomas</i>	19
			ABARRATIA <i>Etcheverry Panpi – Jaureguiberry Olivier</i>	30

ABARRATIA
AIHERRA / ISTURITZE / DONOZTIRI



2017an, ABARRATIAk 80 lizentziadun kirolari zituen, hauetan 19 neska, hots 2016an baino kopuru handiagoa.

Nesken pala eskola berriz irekia izan da 2016ko otsailean eta arrakasta handia ukan du. Christine ETCHEVERRY eta Virginie JONCQUET-ek 13 neska gazte trebatzen dituzte asteazken guziz IZTURITZEko trinketan. Handienek haien lehen bihotz pilpirak ezagutu dituzte Union Basque txapelketan joan den ekainean.

Beste 6 "konfirmatuek", J-Michel IRIBARNE-ek trebaturik, emaitza onak ukan dituzte. Fanny MESPLES-en performantzia azpimarratzekoa da : 2017an 3 finaletara heldu da Luxi LASCARAYekin (AIRETIK-eko hedatzea)

Esku huska, gazte gehienek Euskal Herriko, Union Basque-eko eta Federakuntzako txapelketetan parte hartu dute, trinketeen, ezker paretan eta frontoian. **3 finala** baizik ez dira izan ABARRATIArentzat, baina aitzineko urteei begira, talde gehiago finala faseetan (finala ¼ eta ½). Hau puntu ona da elkartearendako.

2017 urtean zehar:

- hainbat aktibitate antolatuak izan dira taldearen oreka atxikitzeko diru mailan : egutegi salmenta, bixkotx salmenta lehendakaritzako hauteskundeetan, xingar pizatzea Aiherrako zikiroan, ostatua eta talo salmenta finalen kari. Finantza bilanak **1 652,55 €-ko** irabazia erakusten du.
- ABARRATIAk sasoi bukaerako ateraldi bat antolatu du Labenne herriko Aquatic Landes parkera lizentziadun gazteendako, eta ondotik paella gualdi bat izan da elkarteko guraso eta kideen irekia, taldea sendotzeko.
- Webgune berri bat, **www.abarratia.fr** sortua izan da eta facebook orri bat (**abarratia facebook**) irekia.

2018an, jarduera gehienek segituko dute. Diru gastu handi bat aurreikusi beharko da piloten erosteko, Frantziako Pilota Federakuntzak behartzen duen erosketak da.

IZTURITZEko trinketa asteazken arratsalde guziz erabilia da pala eta esku huska trebaketendako eta noiztenka hartua txapelketako partidendako. Aldizkari honetaz baliatzen gira herriko etxearen eskertzeko, gure esku utzi dituen ekipamenduendako.

2017an JOSTATUTAKO 3 FINALEN EMAITZAK

EGUNA	TOKIA	TXAPELKETA	TALDEAK	PUNTU.
29/01/2017	BARDOZE	U. BASQUE ESKU HUSKA TRINKETA / TARROAK A	ABARRATIA Duhalde Xalbat – Echevertz Mattin	31
			IRISARTARRAK <i>Bidart Paolo – Uhart Bixente</i>	40
26/03/2017	AZKAINE	EHko LIGA ESKU HUSKA TRINKETA BURUZ BURUKA / ARTEKOAK B	NAPURRAK <i>Darguy Paul</i>	40
			ABARRATIA Etcheverry Pierre	18
15/07/2017	USTARITZE	EHko LIGA ESKU HUSKA PLAZA LIBREA / TARROAK B	AIRETIK <i>Dupuy Ellande – Bourdillat Thomas</i>	19
			ABARRATIA Etcheverry Panpi – Jaureguiberry Olivier	30

ARBEROA IKASTOLA AINTZINA



Arberoa Ikastola Aintzina est une association constituée de parents d'élèves d'Isturitz qui œuvrent pour le soutien et la promotion d'Arberoa Ikastola (école intercommunale immersive en langue basque basée à St Martin d'Arbéroue).

Diverses manifestations (dont Arberoa eguna, le vide grenier et plus récemment le marché de Noël avec des artisans et producteurs locaux) sont donc organisées chaque année afin de :

- collecter des fonds qui servent à financer le fonctionnement de cette école (salaires des 3 ATSEM, achats de fournitures et de matériel, goûters, ...),
- participer à la vie de notre commune.

Le projet d'école d'Arberoa Ikastola porte sur la Communication Non Violente (CNV), le développement de l'autonomie et de la personnalité ainsi que le respect de l'environnement (tri des déchets, compostage, jardinage, goûter commun bio, ...).

Ouverte en septembre 2008 (avec 5 élèves lors de la première rentrée), ce sont actuellement 69 enfants (dont 23 d'Isturitz) qui y sont scolarisés. Nous tâcherons donc d'organiser de nouveaux et nombreux événements pour fêter avec enthousiasme ces 10 ans d'existence !!!

Cette année, les portes ouvertes de l'Ikastola auront lieu le samedi 10 mars 2018. Si vous voulez (en dehors de cette journée) en savoir davantage sur le mode de fonctionnement ou la pédagogie en place, n'hésitez pas à contacter :

- l'école : 05.59.29.76.23

- un des parents : Aline Dupouy : 09.60.14.79.30 / Sandrine Arotçarena : 05.59.29.46.25



*Visitez notre site web
www.arberoaikastola.org*

ARBEROA IKASTOLA AINTZINA



Arberoa ikastola aintzina Izturitzen kokatzen den elkarte bat da, haurrak Arberoa ikastolan dituzten burasoez osatua da.

Urtero ekintza ezberdinak antolatzen dira Izturitzen (Arberoa eguna, ganer hustea, eta berrikiago eguberriko merkatua tokiko ekoizle eta eskulan egileekin) :

- *Arberoa ikastolako eguneroko gastu ezberdinen estaltzeko (irakasle laguntzaile diren 3 langileen hilabete sariak, ikas materiala, haskariak ...),*
- *herriko bizian parte hartzeko.*

Arberoa ikastolaren proiektua komunikazio empatikoan, nortasunaren eta autonomiaren garapenean, eta ingurumenaren errespetuan (ondarkinen berexketa, haskari biologikoak, baratzea...) oinarritzen da.

2008an ideki zen 5 hurrekin, gaurregun 69 ikasle dira, Izturitzeko 23 haur barne. 10 urte beteko ditu aurten ikastolak, animazio eta ekintza anitzekin ospatuko dugu!!!

Martxoaren 10en iraganen dira ate idekiak ikastolan, bizkitartean ikastolako ibilmoldeaz edota pedagogiaz xehetasun gehiago nahi luketenentzat, ez duda eta ikastolara dei ezazue zuzen : 05 59 29 76 23.

Edo herriko buraso hauetarik bati :

- *Aline Dupouy : 09 60 14 79 30.*
- *Sandrine Arotçarena : 05 59 29 46 25.*



*Begira gure webgunea
www.arberoaikastola.org*

APE BIGABAT

Cette année, c'est un grand changement pour notre association et pour l'école. En effet, à la rentrée 2017, le regroupement avec l'école publique d'Ayherre a eu lieu. Les deux APE de chaque école ont fusionné et se nomme désormais l'APE BIGABAT.

Concernant l'école d'Isturits, le directeur est monsieur CASTILLON, il est aussi l'enseignant de français. Il est accompagné de madame DUFAU et de madame ERRECART pour l'enseignement en basque. Pour compléter l'équipe, 4 ATSEM assurent le suivi : Véronique, Carmen, Audrey et Régine.

La directrice de l'école d'Ayherre est madame GUILLAUME, elle est aussi l'enseignante de français. Madame HUMAYOU est enseignante en basque.

Le pôle d'Isturits, accueille 45 élèves de la petite section au CP. Le pôle d'Ayherre accueille 26 élèves du CE1 au CM2.

L'APE continue son travail avec les écoles pour aider à financer les projets pour les sorties culturelles et sportives.

Nous avons commencé l'année 2018, par un tournoi de mus qui a eu lieu à la salle communale d'Isturits. Cette journée a remporté un franc succès.

Le 1^{er} mai, a été organisée une randonnée, avec deux parcours de 9 et 15 Kms, sur les hauteurs d'Ayherre. Nous y avons associé l'association du village « Ma Maë à l'infini » et reversé 1 € par inscription.

La météo était favorable, un peu plus de 250 randonneurs ont participé à cette randonnée. Cette journée s'est clôturée en dégustant de savoureux talos sur la place d'Ayherre.

En juin, les pôles d'Ayherre et d'Isturits se réuniront à la salle pour tous du village, pour présenter le premier spectacle scolaire. Comme chaque année, l'APE répondra présent pour régaler vos papilles !

Toutes les personnes intéressées seront les bienvenues à cette soirée.



APE BIGABAT

Aldaketa handi bat izan da aurten gure elkartearentzat eta eskolarentzat. Alabaina, 2017ko eskola sartzean Aiherrako eskolarekilako bateratzea iragan baita. Bi eskoletako buraso elkarteek bat egin dute eta ondorioz elkarte berria BIGABAT BURASO ELKARTEA deitzen da.

Izturitzeko eskolako zuzendari berria CASTILLON jauna da, frantsesa irakasten duena ere. DUFAU eta ERRECART andereek laguntzen dute euskarazko irakaskuntzan. Taldearen osatzeko, Véronique, Carmen, Audrey eta Régine atsem-ek jarraipena segurtatzen dute.

Aiherrako eskolako zuzendari berria, GUILLAUME anderea da, honek ere frantsesa irakasten duena. HUMAYOU anderea, euskarazko irakasle gisa ari da.

45 ikasle hartuak dira Izturitzeko gunean, ama eskolatik CPra. Aiherrako gunean aldiz, 26 ikasle badira, CE1etik CM2ra.

Buraso elkarteak bere eskolekilako lana segitzen du, kultur eta kirol ateraldiak diruz laguntzen.

2018 urtea abiatu dugu, Izturitzeko herriko gelan iragan den mus lehiaketa batekin. Egun horrek zinezko arrakasta bildu du.

9 eta 15 km-ko ibilbideetako ibilaldi bat antolatua izan da maiatzaren 1ean, Aiherrako kaskoetan gaindi. "Ma Maë à l'infini" herriko Elkarte partzuer gisa hartu genuen eta 1€ isuri genion izen emate bana.


Aroa alde izanki, 250 ibiltari baino gehiago hurbildu ziren ibilaldi horretara. Eguna bururatu zen, talo gozo batzu janez Aiherrako plazan.

Ekainean, Aiherrako eta Izturitzeko guneak bilduko dira herriko biltokian, eskolako lehenbiziko ikuskizunaren aurkezteko. Urte guziz bezala, buraso Elkarte hor izanen dugu gure ahoen gozagarri !

Interesatuak diren guziak ongi etorriak izanen dira gaualdi horretara.



LE COMITÉ DES FÊTES



Isturitzeko Gazteria

Comme tous les ans, les fêtes du village ont débuté le vendredi soir. Quatre équipes se sont affrontées lors des « Jeux pour les Nuls », pendant que le public admirait le spectacle, sourire en coin, talos et bière à la main. Une bonne soirée conviviale et pleine de rires !

Le samedi, le traditionnel méchoui a fait déplacer 267 personnes. La banda Airoski a animé le repas, puis a laissé la place au groupe Xitoak, pour leur dernière représentation à Isturits, jusqu'à 4h00.

Le dimanche, l'apéritif offert par le comité sur la place du village a réuni des dizaines de personnes. Un moment familial autour d'un verre et de quelques tapas pour se retrouver, ou se raconter les potins de la veille ! Puis Locsport est venu installer son matériel avant qu'une foule d'enfants envahisse les lieux. Nous avons pu en apercevoir certains, déambulant au milieu de dizaines de jeux, de la barbe à papa ou du nutella autour de la bouche... Les cris et les rires enfantins se sont estompés petit à petit, laissant place aux personnes venues déguster l'anguillade au restaurant Haramboure.

Le dimanche suivant, 113 repas ont été servis lors de la journée des villageois. Soleil et bonne ambiance étaient au rendez-vous ! Après le repas, certains se sont initiés au Mölkky, ou papotaient en terrasse, tandis que d'autres ont fait quelques pas de danse endiablés sur la musique du groupe Kontrabanda. Les derniers sont restés au comptoir afin de s'hydrater, chaleur oblige !

Pour l'année 2018, un projet de soirée cidrerie vous a été proposé. Un très gros succès qui sera certainement reconduit pour l'année 2019. D'autres projets sont également en cours de réflexion pour cette année-là. Actuellement, nous travaillons sur le programme des fêtes 2018 : un retour aux traditions, et un changement total ! Nous vous en dirons plus bientôt... Au niveau du bureau, rien ne change : Eric CARCELLER, Président – Nicolas BELLOCQ, Vice-Président – Carmen CARCELLER, Trésorière – Angelo CARCELLER et Sylvain DONAPETRY, secrétaires.

Un immense merci à tous les bénévoles pour leur implication : les jeunes qui nous rejoignent, et apportent un nouveau souffle à l'association ; et les anciens qui commencent à s'éclipser petit à petit. ♥

Une grande reconnaissance envers vous, villageois, pour votre générosité, votre participation, votre bonne humeur...



On vous dit à très vite !
Le comité des fêtes.



Urtero bezala, herriko bestak ostiral arratsean hasi dira. Lau talde lehiatu dira "Mentsendako jokoen" kari, ikusleek ikusgarria miresten zutelarik, irria ezpainetan, talo eta garagarno eskuan. Lagunen arteko eta irriz beteriko gualdia !

Isturitzeko Gazteria

Larunbatean, usaiako zikiroak 267 pertsona jinarazi ditu. Airoski taldeak apairua alaitu du, eta Xitoak taldeari lekua utzi dio, haien azken emanaldiarendako Izturitzen, goizeko 4ak arte.

Igandean, komiteak herriko plazan eskaini duen hurrupaldiak hamarnaka jende bildu ditu. Familia giroko momentua, baso baten eta pintxo batzuen inguruan elkartzeko, edo bezperako kutzukeriak kondatzeko! Ondotik Locsport bere materialaren muntatzera jin da, haur andana batek bazterrak inbaditu aitzin. Batzu ikusi ditugu, hamarnaka jokoen artean ibiltzen, azukre bixarra edo nutellarekin aho inguruan... Haurren oihu eta irriak ixildu dira emeki-emeki, Haramboure ostatuko aingirak jatera jinak ziren pertsonei lekua utziz.

Ondoko igandean, 113 bazkari zerbitzatuak izan dira herritarren egunean. Giro ona eta iguzkia hor ziren ! Bazkariaren ondotik, batzuk Mölkky jokoa entseatu dute, edo terrazan kalakan egon dira, beste batzuk dantza urrats biziak eman dituztelarik Kontrabanda taldearen musika segituz. Azkenak ostatuan egon dira hidratatzeko, bero baitzen!

2018 urteko, sagardotegi gualdi bat proposatua izan zaizue. Izigarriko arrakasta izan du, eta segurki 2019an berriz antolatua izanen da. Beste proiektu batzuri buruz gogoetatzan ari gira urte horrendako. Gaur egun, 2018ko pesten egitaraua lantzen ari gira: ohituretara itzultze bat eta aldaketa oso bat! Laster gehiago erran dizuegu... Bulegoan deus ez da aldatu: Eric CARCELLER, Lehendakaria – Nicolas BELLOCQ, Lehendakariordea – Carmen CARCELLER, Diruzaina – Angelo CARCELLER eta Sylvain DONAPETRY, idazkariak.

Milesker handi bat boluntario guzietan haien parte hartzearendako : Guregana heldu diren gazteak, elkarteari hats berri bat ekarriz; eta emeki-emeki ixilik joaiten diren zaharrak. ♥

Zuek, herritarrak eskertzen zaituztegu, zuen eskuzabaltasunarendako, zuen parte hartzearendako, zuen umore onarendako...



*Laster arte!
Pesta komitea*

ASSOCIATION "MA MAË À L'INFINI"



Le 11 mai 2017, pour les 10 ans de Maë Mendiburu, l'association loi 1901 « Ma Maë à l'infini » a été créée par Eliane LARRABURU, Isabelle AMESTOY et Valérie LARRAMENDY.

Cette association a pour but de financer les surcoûts liés au handicap de Maë et non pris en charge ou seulement en partie par les différents organismes.

En effet, Maë s'est faite opérée en février 2018, à l'hôpital Necker de Paris. Cette intervention nécessitera divers déplacements durant les prochaines années. L'association espère également financer un triporteur à assistance électrique.

Depuis la création de l'association nous avons participé avec de nombreux coureurs solidaires à des courses en joelette autour de Maë :

- « La Petian » à SALIES DE BEARN en juin où l'association a été mise à l'honneur en recevant un trophée
- « La foulée des festayres » à BAYONNE en juillet
- « Les virades de l'espoir » à BONLOC en septembre
- « La randonnée pédestre d'ERBERUA » en Octobre qui cette année a choisi de nous aider en nous reversant un euro par participant
- « La course des collines » à SAINT MARTIN D'ARBEROUE en novembre

En Octobre, nous avons organisé un concert avec le chœur de femmes « ENARA » à l'église d'Hasparren, d'autres concerts ont eu lieu en janvier 2018 avec XARAMELA à l'église d'ISTURITS et GO SWING à l'église de MENDIONDE.

Chacun de ces événements a permis à l'association de se faire connaître et d'avancer dans ses projets en fédérant autour d'elle des personnes bienveillantes.

Nous tenons à remercier vivement tous les personnes, et associations qui nous ont apporté leur soutien moral et financier.



"MA MAË À L'INFINI" ELKARTEA



2017ko maiatzaren 11an, Maë Mendibururen 10 urteen kari, "Ma Maë à l'infini" 1901 legepeko elkarte sortu dute Eliane LARRABURU, Isabelle AMESTOY eta Valérie LARRAMENDYk.

Elkarte honen helburua Maë-ren elbarritasunari lotuak diren gainkostuen diruztatzea da, erakunde ezberdinek gaizki edo batere ez dituztelarik haien gain hartzen.

Alabainan, Maë-ri ebakuntza egin diote 2018ko otsailean, Pariseko Necker hospitalean. Ebakuntza honen ondorioz joan-jin ezberdinak egin beharko dira ondoko urteetan. Elkarteak elektrikaz lagundua den ibilgailu bat diruztatzea espero du.

Elkarte sortu denetik, elkartasuna erakusten zuten korrikalariekin hainbat lasterkalditan parte hartu dugu txirrindula egokituekin Maë-ren inguruan :

- "La Petian" SALIESen ekainean. Elkarte ohoratua izan da sari bat eskuratuz.
- "La foulée des festayres" BAIONAn uztailan
- "Itxaropen biradak" LEKUINEn irailean
- "La randonnée pédestre d'ERBERUA" urrian. Aurten gure laguntzea deliberatu dute euro bat emanez parte hartzaileka.
- "La course des collines" DONAMARTIRIn azaroan

Urrian, kontzertu bat antolatu dugu "ENARA" emazte koruarekin Hazparneko elizan, beste kontzertu batzu iragan dira 2018ko urtarrilan XARAMELArekin IZTURITZEko elizan eta GO SWING taldearekin LEKORNEn.

Gertakari hauetako bakoitzari esker elkarteak bere burua ezagutarazi du eta bere proiektuetan aitzina joan da borondate oneko pertsonak bere inguruan bilduz.

Haien sustengu morala eta diru mailako sustengua erakutsi diguten pertsona eta elkarte guziak eskertu nahi ditugu.



TOURNOI DE PALA ANCHA 2016/2017 Finales le 01 avril 2017

3eme série

GOUTENEGRE – ELICEIRY	50 / 44	ACHERITOBEBHERE – BARNECHE
-----------------------	---------	----------------------------

2eme série B

GARAT – AMESTOY	50 / 24	BAUM – CARRAU
-----------------	---------	---------------

2eme série A

SABALCAGARAY – LARRONDO	50 / 42	ETCHART – BENAC
-------------------------	---------	-----------------

1ere série

IRASTORZA - SORHONDO	50 / 38	OXOBY – JORAJURIA
----------------------	---------	-------------------

DONATEURS

Restaurant Haramboure *Isturits* – Conseil Départemental des Pyrénées Atlantiques – Ambulance de l'Ursuya *Hasparren* – Xuriatea *Hasparren* – Etablissement Camou Hiribarne *Hasparren* – Hirigoyen André *Hasparren* – Crédit Agricole *Hasparren* – Intermarché *Hasparren* – Lauak *Ayherre* – SARL Pochelu *Saint Martin d'Arberoue* – Groupama – Société d'Exploitation des carrières de Sare (Durruty) – Boulangerie Bidart *Hasparren* – SARL Etchemendy *Bonloc* – Caves d'Hasparren – Larragneta Yves *Hasparren*.



Les organisateurs remercient vivement les donateurs, les juges,
ainsi que tous les bénévoles pour leur dévouement.
Grâce à tous, ce tournoi a pu se dérouler dans les meilleures conditions.

ERBERUA



Le vendredi 20 janvier 2017, jour de l'Assemblée Générale, ERBERUA a présenté le bilan moral de l'association.

Tout d'abord, l'activité qui perdure depuis de nombreuses années (33 ans) est le tournoi de pala-ancha. Il anime le village des mois de novembre à fin mars. Les 70 à 80 joueurs sont issus de tout le Pays Basque et même du sud des Landes.

L'équipe des bénévoles : juges et buvette permet un bon déroulement de cette animation, dans une ambiance conviviale. Nous les remercions vivement pour leur participation active.

Ensuite, les randonnées pédestres et VTT du dimanche 29 octobre ont drainé plus de 750 participants, un grand succès, le soleil était au rendez-vous.

A l'issue de la randonnée, plus de 200 participants venus de plusieurs régions de France se sont retrouvés autour d'une bonne table. Un grand merci au service restauration et particulièrement aux cuisinières.

Nous remercions vivement les différents propriétaires qui nous autorisent à passer sur leurs terres, ainsi que les 80 bénévoles qui se sont mobilisés pour la réussite de cette journée.

Pas de randonnée sans nettoyage des chemins... Pendant plusieurs soirs, des bénévoles se sont retrouvés pour préparer les circuits. Quelques jeunes retraités ont plutôt débroussaillé pendant la journée.

Cette année, ERBERUA a choisi d'aider financièrement l'association MA MAË À L'INFINI, qui a pour objet de faire connaître le cas de Maë et de sensibiliser de façon plus générale au handicap. L'association recueille des dons afin de financer les surcoûts liés au handicap et non pris en charge par les différents organismes.

Lors de l'AG, un chèque de 1000€ a été remis à Eliane Larraburu, présidente de l'association et maman de Maë.

En 2017, la météo capricieuse n'a pas permis la randonnée nocturne.

2018 _ Rando nocturne : 30 juin ou 07 juillet
Rando marche/VTT : 28 octobre



ERBERUA



2017ko urtarrilaren 20an, ostiralarekin, Biltzar Orokorraren egunean, ERBERUA elkarteak bilan morala aurkeztu zuen.

Lehenik, pala-ancha txapelketa duela urte anitz irauten duen aktibitatea da (33 urte). Azarotik martxorat, herrian animazioa ekartzen du. Euskal Herri osotik eta Landesetako hegaldetik jiten diren 70 eta 80 jokalaria artean biltzen ditu.

Laguntzaile taldea : epaileei eta ostatuaari esker, animazioa giro atseginarekin iragaten da. Beren parte hartze aktiboarentzat eskertzen ditugu.

Bestalde, urriaren 29a igandeko oinezko eta mendiko bizikletako ibilaldian, 750 parte hartzaile baino gehiago bildu ziren. Aroa eta eguzkia lagun, ibilaldiak gaitzeko arrakasta izan zuen.

Ibilaldiaren ondotik, Frantziako eskualde ezberdinetarik jin ziren 200 parte hartzaile apairu on baten inguruan bildu ziren. Sukaldaritza zerbitzuari eta bereziki sukaldariei, milesker.

Beren lurretan ibiltzen uzten gaituzten lur jabeak eta egun hori baldintza onetan iragaten lagundu gaituzten 80 laguntzaileak eskertzen ditugu ere.

Baina, bideak garbitu gabe, ibilaldirik ez... Arrats batez baino gehiago, ibilaldiaren laguntzaileak zirkuituaren prestatzeko bildu ziren. Erretreta hartua duten lagun batzuk egunez sasiak garbitzen ibili ziren.

Aurten ERBERUAK, MA MAË À L'INFINI elkarte diruz laguntzeko hautua egin du. Elkarte honek Maë-ren kasua ezagutarazten du eta orokorki, elbarritasunari buruzko sentiberatzeak daramatza. Diru emaitzak biltzen ditu, elbarritasunari lotuak diren gainerateko gastuen pagatzeko, hauek ez direlarik osasun erakundeenganik lagunduak.

Batzorde Nagusian, 1000€ko txeke bat eskainia izan da Maë-ren ama eta elkarteko lehendakaria den Eliane Larraburu-ri.

2017an izan dugun aro txarraren gatik, gau-ibilaldirik ez da egin.

2018 _ Gaueko ibilaldia : ekainaren 30an edo uztailaren 07an
Oinezko / Mendi bizikletako ibilaldia : urriaren 28an

